



## NAFARROAKO AEK, BIDEAN AURRERA EGIN DUGU BAINA EZ DA NAHIKOA

**Aitziber Sarasola**

*Nafarroako AEK*

Helbide elektronikoa: [aitziber@aeknet.net](mailto:aitziber@aeknet.net)

Urteak dira Nafarroan gau-eskola eta euskaltegi bilakatu zirenak hasi zirela lanean lurralde osoaren luze zabalean. Aski ezaguna den moduan gau-eskola eta talde espontaneoek sorrerak ekarri zuen gerora AEK izanen zena eta gainerako lekuen moduan Nafarroan ere izan zen antolamendu hau.

Urteak aurrera joan ahala, eta AEKn bertan izandako pentsamolde ezberdinen harira, banatu egin zen erakundea, eta hortik abiatuz sortu ziren orain AEK eta IKA moduan ezagutzen ditugun bi erakundeak. Egun bi erakundeok dira Nafarroan lurralde osoan euskara ikastea posible egiten duten euskaltegien sareak, euskaltegi sare publikoak ez baitu horretarako biderik ematen.

Nafarroako AEK-k herri erakunde moduan azaldu izan du beti bere burua. Goian aipatu moduan herritik sortu ginelako sentitzen dugu herritar geure burua. Geure euskaltegiak dauden kokalekuan txertatzen da AEK-kidea eta gure ustez gure berezko izaeraren oinarri izateaz gain geure egin behar garrantzizkoenetakoa da hori. Nafarroako euskaltegiak herri eta auzoetan txertatuak daude eta hala izaten jarraitzea da gure borondatea.

Bestetik, Nafarroako AEK Euskal Herriko AEK da finean eta balio horrek ere badu bere zeresana gainerakoan aurrean. Izan ere historia

“labur” baina zailtasun handiko honetan, ezin ahaztuko ditugu bidean izandako milaka oztopo (judizial, politiko eta beste...). Oztopo horiek guztiak gainditzeko ezinbestekoa izan da Euskal Herri mailako erakunde bateko parte izateak eman digun sostengua eta bermea. AEK-ko euskaltegien sarea indartzeak eta erakundetzeak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen izozte eta murrizketei aurre egiten lagundu digu, eta modu horrek bizirauteko bermea eman digu.

Jakina den bezala, ditugun gobernatzailerak ez dute helduen euskalduntze lana behar bezala ez aitortu eta ez diruz lagundu euskaltegi eta gau-eskolentzako dirulaguntzak hasi ziren garai haietatik. Horrek askotan prekarietate egoeretara eramane du AEK-ko irakasleria eta, oraindik orain, askotan AEK-ko irakasleak bere lana ahalik eta kalitate handienarekin egiteaz gain, bere burua behartu ikusten du dirua nondik atera pentsatzen eta lantzen, Nafarroako Gobernuan oraindainokoa egin direnek euskararen eta helduen euskalduntze alfabetatzearen kontra egin dituzten sarraskiak azalerazten eta salatzen, eta bestelako egoera batean burutu beharko ez lituzketen hainbat lan burutzen. Uztarri handia da AEK-ko irakasleak lotuta izan dituen urteetan eta hori larrutik ordaindu izan dugu eta oraindik orain ere ordaintzen dugu. Irakasle aldaketa handiak izan ohi ditugu; gogorra da dinamika honetan urteetan aurrera egitea, eta, hori, egoera honek ordaintzera behartzen gaituen bidesari bidegabekoa da.

Aipatu gabe ezin utzi gobernauk zuzenean kudeatzen ez dituen euskaltegietan euskara ikasten duten milaka ikasle horien balioa eta merezimendua. Matrikula prezioen etengabeko igoera jasan behar izan dute eta gutxi balitz, gobernuaren eta udal handien aldetik ez dute inolako errekonozimendurik jasotzen, ez behintzat beka sistema moduan.

Sarrera honetan ageri den moduan, beraz, ajeak gehiago izanen dira hemen plazaratuko ditugunak, inori zorionak ematea baino. Dena dela, gatozen poliki-poliki Nafarroako euskaltegien berri zuzenean jaso eta urte hauetan izandako emaitzak aztertzea.

## NAFARROAKO AEK DATUETAN

### Euskaltegien mapa

Nafarroako AEK ia lurralde osoan aritzen da helduei euskara eskolak ematen. Urteetan barrena, ordea, ez dira berdinak izan euskaltegiak egon diren gunek edota euskaltegietatik eskolak eman izan diren herriak.

Oro har, gure betiko oinarri jarraiki, ikasleak egon izan diren lekuan eman izan ditugu eskolak. Lehentasunez, oso garrantzitsua izan baita eta izaten jarraitzen baitu ikasleak non AEK bertan izatea. Herrietan askotan ez dago euskaraz aritzeko edota euskaraz bizitzeko zantzu izpirik ere, eta euskaltegia edo euskara ikasleak izaten dira euskal haize hori ekartzen dutenak.

---

*Nafarroako AEK-k herri erakunde moduan azaldu izan du beti bere burua. Goian aipatu moduan herritik sortu ginelako sentitzen dugu herritar geure burua. Geure euskaltegiak dauden kokalekuan txertatzen da AEK-kidea eta gure ustez gure berezko izaeraren oinarri izateaz gain geure egin behar garrantzizkoenetakoa da hori. Nafarroako euskaltegiak herri eta auzoetan txertatuak daude eta hala izaten jarraitzea da gure borondatea.*

Hauek dira une honetan herrialdean barrena kokatuta ditugun euskaltegiak:

<u>Iruñerrian</u>	<u>Burlata</u>	<u>Alde Zaharra</u>	<u>Donibane</u>	<u>Arrosadia</u>	<u>Berriozar</u>	<u>Zizur</u>	<u>Antsoain</u>
<u>Sakana</u>	<u>Altsasu</u>						
<u>Baztan</u>	<u>Elizondo</u>						
<u>Larraun</u>	<u>Lekunberri</u>	Olazti, Irurtzun, Kaskante, Lodosa, Mutiloa, Berriobeiti, Esprontzeta, Lantz,					
<u>Ultzama</u>	<u>Larraintzar</u>	Faltzes, Gares, Ilunberri, Zangoza, Hiriberri, Orbaitzeta...					
<u>Itzarbeibar</u>	<u>Gares</u>						
<u>Lizarraldea</u>	<u>Lizarra</u>						
<u>Lososaldea</u>	<u>San Adrian</u>						
<u>Erribera</u>	<u>Tutera</u>						
<u>Tafalla</u>	<u>Tafalla</u>						
<u>Aezkoa</u>	<u>Garralda</u>						
<u>Zaraitzu</u>	<u>Otsagi</u>						
<u>Erronkari</u>	<u>Erronkari</u>						

Euskaltegi hauek egoitza finakoak dira eta hauetan urtero eskolak ematen ditugu. Honez gain, euskaltegi hauetatik kanpora hainbat lekutara joan ohi gara. Esanguratsua da Sakanan urtero herri batean edo bestean sortu ohi dira taldeak, edo Erriberan Cascanten eman ditugu eskolak oraintsu arte; Faltzes beste adibide bat izan daiteke. Horrelakoak asko dira. Helduen euskalduntze-alfabetatzean gertatu den bilakaerak bultzatuta asko kostatzen zaio ikasleari bere ingurutik kanpora ateratzea euskara ikastera. Alde batetik onuragarria da hori oso, izan ere irakasleari aukera ematen baitio erabilerari zuzenean lotutako eskolak prestatzea eta ematea. Inguru naturalean murgilduta dagoen euskara ikasleari errazagoa zaio euskaldunen sarea osatzea, inguru naturaletik kanpora atera eta eguneroko bere inguru hurbilekoa ez duen jendearekin osatzea baino.

Dena dela joerak ere aldatzen ari dira jendartea aldatzen ari den moduan. Gero eta mugikortasunerako joera gehiago dugu eta pixkanaka egia da zenbait eremutan euskaltegi handiak dauden gunetara hurbildu nahi duen jendea ere ugari dela. Joerak joera, urte batetik bestera oraindik ere aldaketa handiak dira, herri batean urte batean euskara taldea egon baina hurrengo urtean taldea osatzeko jende nahikorik ez, eta hala-koak maiz errepikatzen baitira.

### **Ikasle kopuruaren bilakaera**

Datu orokorrekin begiratzen badiegu, nabarmena eta kezkatzekoa da euskara ikasten duten ikasleen kopuruaren bilakaera Nafarroan. Bai administrazioak zuzenean kudeatzen dituen euskaltegietan bai herri erakundeetako euskaltegietan urteak dira pixkanaka-pixkanaka ikasle galera gelditu ezinik ari garela.


EAEko datuekin alderatuz, joerak ezberdinak izan dira Nafarroan: hau da, EAEn ikasle kopuruaren bizkortze txiki bat izan den urteetan

Nafarroan mantendu egin da edo beheranzko joera izan da azken hiru urte hauetan.

Ikus ditzagun ondoko taulan aipatzen ari garen bilakaera datuok:

	00-01	01-02	02-03	03-04	04-05	05-06
Ikasleak <sup>1</sup>	1.184	1.170	1.247	1.425	1.223	1.225
Talde orduak <sup>2</sup>	30.959	29.278	28.753	30.102	26.559	26.405
Ikasle orduak	319.927	302.977	316.513	354.977	324.262	319.068

### Ikasle kopuruak



Azken bost urteetan jaitsiera pixkanaka gertatzen ari bada ere aipagarria da 1998ko urrian 1600 ikasle eman zutela izena geurean eta, orain, urte guztiko datuak kontuan izanda ere, ez gara kopuru horietara ailegatzeko.

Dena dela, egindako hausnarketan ez da dena beltza izaten ahal. Kontuan izateko faktore nabarmena da euskara ikasi nahi izatea Nafarroan hautu pertsonala izateko haratago ez doan aukera dela. Esan nahi baita ikasleak euskaltegira hurbildu ahal izateko oso garbi izan behar duela, euskaldun sentitu eta bere hizkuntza ikasi nahi duela.

Zentzu honetan, Nafarroan bi faktore nagusi dira helduak euskara ikasteari gero eta gehiago uzten diotela argitzeko garaian kontuan izatekoak. Batetik, aipatu dudana derrigortasun eza, eskakizun publiko eza da. Instituzioetatik garatzen den euskara politikak ez du euskara kalifikatzen eta prestijiatzen. Horrek ez du tentsionamendurik eragiten, eta goian aipatu moduan, hizkuntza ikasi nahi duenak (betiere ikasle gehienei buruz ari gara) motibazio pertsonal sakon batzuei kasu eginez egiten du.

Auzi hau gero eta nabarmenagoa da Vasconcearen legeak ezarritako eremuez mintzo bagara. Iruñetik iparralderako eskualdeetan euskara izaten ahal du onarpen eskas bat instituzioen aldetik, eta, are gehia-

**Helduen euskalduntze-alfabetatzean gertatu den bilakaerak bultzatuta asko kostatzen zaio ikasleari bere ingurutik kanpora ateratzea euskara ikastera. Alde batetik onuragarria da hori oso, izan ere irakasleari aukera ematen baitio erabilerari zuzenean lotutako eskolak prestatzea eta ematea. Inguru naturalean murgilduta dagoen euskara ikasleari errazagoa zaio euskaldunen sarea osatzea, inguru naturaletik kanpora atera eta eguneroko bere inguru hurbilekoa ez duen jendearekin osatzea baino.**

go, bizirik dagoen hizkuntza da, oraindik orain erabiltzen den komunikatzeko tresna da.

Iruñerriko eremuan (legeak zonalde mistoa deitutako horretan) presioa oraindik mantentzen da eta gutxi edo asko pixkanaka jendartearen presioari esker irauten du.

Baina Vasconcearen legeak eremu ez-euskaldun definitzen duenaz mintzo bagara, Iruñerriko hegoaldera alegia, gauza are okerrago bilakatu da. Euskara ikastea motibazio handiz egin beharreko lana da. Eremu horietan lan egitea gero eta konplexuagoa da. Konplexua da taldeak osatzeko nahiko ikasle izatea, konplexua da eskolak emateko jendea topatzea, konplexua da ikasleak nahiko ordu emateko prest egotea, euskaltegian denbora epe arrazoizko batean euskara ikasteko.

Datuek erakusten ahal diguten beste alde bat hiriburuen eta eskualdeen arteko proportzioa da. Lehen geure ikasleen erdia eskualdeetan ari zen eta beste erdia hiriburuan eta inguruko herri kokorretan. Egun gauzak bestelakotzen ari dira. Iruñerriko kopuruak mantentzeko joera erakusten badute ere, eskualdeetan da hain zuzen ere ikasle kopuru galerririk handiena gertatzen ari dena. Berriz ere eremu ez-euskalduneari kokatutako euskaltegien egoera zaila adierazi nahi nuke.

### **Eskaintzaren bilakaera**

Hasiera batean euskaltegien eskaintza ohiko alfabetatze eskolek osatu izan dute. Ohiko eskaintzaz ari garela, ohiko ikastaldean emandako eskolez osatutako taldeez mintzo gara. Batere euskararik ez dakienetik hasi eta ikas-prozesuan EGA agiria lortuz edo gaitasun komunikatibo osoak eskuratzeko eskaintzaz.

Ikasle kopuruaren bilakaerak, ordea, beste modu batzuk bururatzera behartu izan gaitu. Esaterako, eskualdeetako kasuan taldeak osatzeko zailtasunak gero eta handiagoak dira. Alde batetik, Nafarroako Gobernuak ematen dizkigun dirulaguntza eskasek baliabideak optimizatzen behartu gaitu ezinbestean. 1989an guretzat izendatutako diru-partidak ez du goranzko aldaketarik izan. Hain zuzen ere 2004 eta 2005 ikasturteetan sekulako dirulaguntza murrizketa izan genuen. Murrizketa honek kinka larrian jarri izan ditu euskaltegien diru orekak. Beharturik ikusi dugu geure burua zentzu honetan ikastaldearen ratio-politika (talde bakoitzeko ikasle kopurua) zorrozki ematera. Ratio-politika honek mailakako taldeen osaketa zaildu egiten du, eskualdeetan taldeak osatu ahal izatea ere bai, eta maila bereko X lagun ordutegi berean eskuratzea magia ezinezko bilakatu da leku askotan.

Gauzak honela, talde heterogeneoen inguruan (maila ezberdineko ikasleak ikastalde berean) egindako proiektuek hein batean arazo hau gainditzeko lagundu izan digute. Eskualdeetako eskaintzaren garapenean autoikaskuntzaren erdua halabarrez gauzatu behar izan dugu, nahiz

eta askotan ikasleen benetako nahia ohiko ikastalde bidez ikastea izan. Hala ere, onartu beharra dugu metodo honek emaitza txukunak eman izan dituela orain artekoan eta hasieran izan genituen mamu asko uxatu ditugula. Birmatrikulazio-tasa ohiko ikastaldeetan baino makurragoa izan arren, emaitzak ez dira alde batera uztekoak.

Bestetik, hainbat proiektu garatu izan ditugu euskaltegietan: erabile-raren ingurukoak, ikasle ohiekin egindako hainbat esperientzia, euskaltegietan txoko ezberdinetan erabileran anitzeko proiektuak. Halako asko garatu da urteetan barrena, baina hauetako asko ere bertan behera geratu da, baliabide faltagatik gehienetan. Irakasle talde oso aktiboa izan dugu eta badugu, baina zaila da horrelako ekimenak denboran luze mantentzea, baliabide urriengatik.

Dena dela normalizazio proiektuak garatzen ere hasi gara eta zentzu honetan Burlatako Euskal Herria Peñan garatzen ari garen hizkuntzaren normalkuntza plana aipatu gabe ezin utzi, aisia eta euskara lotzeko beste modu berri bat garatzen ari baikara bertan.

### **Irakasleak Nafarroako AEKn**

Ikasleen kopuruaren bilakaerari buruz mintzatu garen modu berean mintzatzeko ahal gara AEK-ko irakasleen bilakaeraren inguruan. Ikasle kopuruaren jaitsiera izan den modu bertsuan izan dugu irakasleen kopuruaren ere beheranzko joera. Egun, Nafarroan, AEKn irakasle aritzeko EGA agiria eta glotodidaktika ikastaroa eginga izatea derrigorrezkoa da eta unibertsitateko ikasketak eginak izatea hobetsi egiten dugu (EAEko euskaltegietan eskatzen den titulazioaren antzera).

Bestalde, irakasleen lan baldintzak pixkanaka hobetuz joan badira ere, oraindik bide luzea dugu euskara irakasten gurekin aritu nahi duen edonori lan baldintza duinak eskaintzeko. Oraindik aje asko ditugu eta zenbait lekutan irakasleak topatzeko zailtasun handiak. Esaterako, Erribera edo Zangozaldeko kasuan, nahi adina ikasle hartzeko ezintasuna dugu eta horrek eskaintza garatzeko zailtasun handiak suposatzen dizkigu; bestalde, gure euskaltegien lan filosofiari helduta bertako irakasleak topatzea hobetsi izan dugu beti, irakasle itineranteak bidali beharrean. Irakaslearen integrazioak berezko lekuan emaitza oparagoak eskaintzen ahal dizkie ikasleei, euskararen erabileran aurrerapausoak emateko orduan bermea baita irakaslearen gertutasuna.

### **ONDORIOAK**

Azterketa bizkor honen ondotik, eta gaiak aztertzeke sakontasun handiagoa eskatzen badu ere, honako ondorioak atera ditzakegu:

Helduen Euskalduntze Alfabetatzeak Nafarroan eragile nagusi bilakatu behar du Nafarroako Gobernuak bultzatzen duen politika oker eta

---

*Zentzu honetan,  
Nafarroan bi faktore  
nagusi dira helduak  
euskara ikasteari gero eta  
gehiago uzten diotela  
argitzeko garaian  
kontuan izatekoak.  
Batetik, aipatu dudan  
derrigortasun eza,  
eskakizun publiko eza da.  
Instituzioetatik garatzen  
den euskara politikak ez  
du euskara kalifikatzen  
eta prestijiatzen. Horrek  
ez du tentsionamendurik  
eragiten, eta goian aipatu  
moduan, hizkuntza ikasi  
nahi duenak (betiere  
ikasle gehienei buruz ari  
gara) motibazio pertsonal  
sakon batzuei kasu eginez  
egiten du.*

***Eskualdeetako kasuan taldeak osatzeko zailtasunak gero eta handiagoak dira. Alde batetik, Nafarroako Gobernuak ematen dizkigun dirulaguntza eskasek baliabideak optimizatzen behartu gaitu ezinbestean. 1989an guretzat izendatutako diru-partidak ez du goranzko aldaketarik izan. Hain zuzen ere 2004 eta 2005 ikasturteetan sekulako dirulaguntza murrizketa izan genuen. Murrizketa honek kinka larrian jarri izan ditu euskaltegien diru orekak.***

ankerrarengatik. Eragile nagusi diodanean protagonista esan nahi dut. Horretarako euskalgintzak bere tresnak baditu: bai Oinarriak-en zein Kontseiluaren Vasceucearen legearen inguruko tentsionamenduaren eta beronen betiereko aldaketa eskatzera behartuak gaude. Gure lana helduei euskara irakastea da gehienez. Baina egun ditugun baldintza kas-karretan bistan da Nafarroan hausnarketa bateratu batetik abiatuta neu-rriak hartu beharrean garelako eta euskalgintzaren indar bateratuak baino ezin ekarriko duela aldaketa hori.

Ezin ahaztu bestalde, euskalgintzatik eta bereziki helduen euskal-duntze-alfabetatzetik hainbatean salatu izan dugun jendartearen erlaxa-tzea. Nolabait esatearren, euskararekiko konpromisoa jaitsi egin da heldu askoren artean. Aitzakia asko aurretik jarrita ez diogu euskara ikasteari behar duen lehentasunik eskaintzen. Haurrek eskolan D eredura erama-tearekin ez da nahiko, ez da nahiko euskararen aldeotasuna agertze hutsarekin, euskarak gaur behar ditu neurriak eta gaur neurriak hartze-ko helduek modu masiboan jo behar dute euskaltegiara euskara ikaste-ra. Horrek ere eragina du; izan ere, nafar gobernuari egiten ahal diogun presio-bide handiena euskaltegiak lepo betetzea izanen baita.

Geure arloari dagokionean, aldiz, euskaltegiok finantziario marko orekatu bat bilatzeari ekin beharra diogu. Zentzu honetan, egun jasotzen dugun dirulaguntza itxuragabeak, askotan salatu izan dugun moduan galbidea baino ez digu ekartzen. Agenda politikoan gure lekua topatu behar dugu, modu honetan euskalgintzak Nafarroan duen lan orokor horren baitan geure eskakizunak txertatu eta arloa gorpuztu behar dugu nafar jendartearen aurrean. Zentzu berean ulertu behar dugu ikasleak euskaltegiara erraztasunez hurbiltzeko beharrezkoak diren fondoak garatzea beka sistemarako. Zentzu honetan, Nafarroako hainbat udalen eta mankomunitateren lana aipatu gabe ezin utzi, bertako biztanleei berezko eskubidea duten euskara ikastea ekonomikoki hain pisutsua ez izatea ahalbideratzen dutelako.

Geuri euskaltegioi dagokigu euskara ikastea erakargarri bilakatzea. Horretarako, derrigorrean eskolak ahalik eta kalitate handienez eskain-tzeko konpromisoarekin jarraitu behar dugu. Baliabide eskasekin bada ere, irakasleen prestakuntzan ahaleginak egiten jarraitu, ikasmaterialen sorrera, ikasleak euskaltegiara hurbiltzeko ahaleginak bikoiztu,... Nahiz eta jakin euskara ikastea askori ez zaiola lan sobera erraza suertatzen, metodologian eta kurrikuluetan berrikuntzak txertatuz, lan itzela dugu hobekuntzak garatzen eta ikaslearen ikas-prozesuan ahalik eta pauso handienak ematen, berau samurtzeko eta batez ere bizkortzeko.■

## **OHARRAK**

1. Ikasturte osoan barrena euskaltegitik pasa den ikasle kopurua.
2. Ikasturte osoan barrena, uda barne.